

4.

gida

Zentroen antolamendua eta funtzionamendua





Logotipo honek identifikatzen ditu irakurketa zailtasunak dituzten pertsonentzako IFLAren (International Federation of Library Associations and Institutions) eta Inclusion Europeen irizpideak jarraitzen dituzten materialak.

Araba, 2023

“Gaixotasun mentala duten pertsonentzako Arabako Lurralde Historikoko eguneko egoitza arretako zentroen eta zentro okupazionalen estatutua”ren “Xedapen orokorrak”eko I. Tituluaren irakurketa errazeko egokitzapena, Irakurketa Errazari buruzko UNE 153101:2018 EX arauaren arabera.

Edizioa

Arabako Foru Aldundia

IE egokitzapena

Lectura Fácil Euskadi-Irakurketa Erraza

Diseinua eta maketazioa

Mercedes Corretge Arrastia

Ilustraciones de portada: © M. Corretge

Irudiak

Noun Project: Free Icons-eko ikonoak

Balioztatzea

EAEko liburutegi publikoetako

irakurketa errazeko taldeen erabiltzaileak.

LG:xxxxx

Aurkibidea

Zertarako balio du estatutu?	4
Lantaldeak	5
Erabiltzaileen parte-hartzea	7
Kexak eta iradokizunak aurkeztea	13
Legeak	14



Zertarako balio du estatutu honek?

Estatutua legezko dokumentua da eta elkarte, zentro edo edozein erakunderen funtzionamendu arauak jasotzen ditu.

Estatutu honetan agertzen dira Arabako Foru Aldundiko gizarte zerbitzuetako gaixotasun mentala duten pertsonentzako Oinarrizko Arretarako Zentroetako erabiltzaileek eta profesionalak bete behar dituzten arauak.

Zehazki, azaltzen dira gaixotasun mentala duten pertsonentzako eguneko zentroen, zentro okupazionalen eta egoitzen eskubideak, betebeharrak, antolamendu eta funtzionamendu arauak.


Arabako Foru Aldundiak **5 gida** egin ditu estatutu hau azaltzeko.

Gidak honako hauek dira:

- 1. gida.** Gaixotasun mentala duten pertsonentzako zentro motak
- 2. gida.** Erabiltzaileen eta profesionalen eskubideak eta betebeharrak
- 3. gida.** Gaixotasun mentala duten pertsonen inklusioa zentroetan
- 4. gida.** Zentroen antolamendua eta funtzionamendua
- 5. gida.** Ordezkariek hautatzea

Hau **4. gida** da.

Gida honetan azaltzen da Arretarako Oinarrizko Zentroetako lantaldeek nola funtzionatzen duten eta erabiltzaileek nola parte har dezaketen zentroaren erabakietan eta jardueretan. eta erabiltzaileek nola parte har dezaketen zentroaren erabakietan eta jardueretan.



Lantaldeak

Zentro guztietan profesionalek osatzen duten talde bat dago. Profesional horiek kargu eta lanpostu desberdinak dituzte.

Zentro bakoitzean arduradun bat dago, zuzendaria da.

Zuzendaria arduratzen da Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak ezartzen dituen arauak betetzeaz eta denak ondo funtzionatzeaz.

Zuzendariaren funtzioak honako hauek dira:


- Ziurtatzea profesional-taldeak erabiltzaileei arreta ona ematen dietela eta pertsona horietako bakoitzarentzat Banakako Arreta Plan bat sortzen dela.
- Egiaztatzea zentroan lan egiten duen profesional bakoitzak dagokizkion zereginak egiten dituela.
- Lantaldeak antolatzea.
- Ziurtatzea zentroak betetzen dituela erabiltzaileei ematen zaien arretaren kalitatea hobetzeko arauak.
- Profesional-taldeari etengabeko prestakuntza egiteko aukera ematea.
- Erabiltzaileen informazio pertsonala zabalduz ez dela kontrolatzea.
- Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeari ematea eskatzen duen informazioa.

■ Zentroak funtzionatzeko behar dituen langileak eta baliabide materialak dituela ziurtatzea.

Zentro batean lan egiten duen pertsona bakoitzak argi izan behar ditu zein diren bere zereginak. Talde-bilerak egingo dira profesional guztiek koordinatzeko eta lana hobeto egiteko aukera izateko.

Berariazko bilerak egingo dira pertsona bakoitzarentzat sortzen den Banakako Arreta Plana egokia dela eta betetzen dela egiaztatzeko.





Erabiltzaileen parte-hartzea

Gaixotasun mentala duten pertsonentzako zentroen erabiltzaileek eskubidea dute parte hartzeko zentroen funtzionamenduan eta eragiten dieten erabakietan.

Beren kabuz edo sostengurako duten pertsonaren laguntzarekin egin dezakete, beharrezkoa denean.

Zentro bakoitzean pertsonak parte hartu ahal izango dute honako modu hauen bidez:

- **Batzar orokorra.** Bilerak egiteko tokia da erabiltzaileek esperientziak partekatzeko, zentroaren funtzionamenduari buruzko iritzia emateko eta aurkitzen dituzten arazoei irtenbide posibleak azaltzeko.

- **Parte-hartze Batzordea.** Zentroko erabiltzaileek eta profesionalek osatutako taldea da. Zentroarekin lotutako eta erabiltzaileei eragiten dieten gaiak buruz eztabaidatzeko eta proposamenak egiteko.

Parte-hartze Batzordean ezin dira eztabaidatu zentroko zuzendariak bakarrik erabaki ditzakeen gaiak. Adibidez, pertsona bat zentroan onartzea edo ez.

Parte-hartze Batzordeaz gain zentroan beste motako bilerak egin daitezke. Bilerak izan daitezke zentroko jarduerekin eta eguneroko antolaketarekin zerikusia duten gaiak eztabaidatzeko eta lantzeko. Adibidez, bazkaltzeko ordutegia egun batean aldatzea, ekitaldi edo jarduera berezi bat dagoelako.

14 erabiltzaile baino gutxiago dituzten zentroetan ez da derrigorrezkoa izango batzar orokorrak egitea ezta parte-hartze batzordea izatea. Baina bai izango dituzte bilerak eta eztabaidatzeko eta erabakiak hartzeko espazioak.

Batzar orokorra

Batzar orokorra zentroko erabiltzaile guztiek osatzen dute. Pertsona bakoitzak parte har dezake modu autonomoan edo pertsona sostengatzailearen laguntzarekin.

Batzar orokorrera joan daitezke erabiltzaileen senitartekoak eta gertuko beste pertsona batzuk ere, nahiz eta tutorea ez izan.

■ Zein dira batzar orokorraren funtzioak?

- 1.** Erabiltzaileen eskubideak eta interesak defendatzea, erabiltzaileen nahiak eta premiak kontuan hartuta.
- 2.** Zentroaren funtzionamenduarekin zerikusia duten alderdiak eta Estatutu honek ezartzen dituen arauak zein diren jakitea.
- 3.** Zentroko bizikidetzara-aruak betetzen laguntzea.
- 4.** Zentroa funtzionatzen ari den moduaren jarraipena egitea.
- 5.** Erabiltzaileen bizi-kalitaterako onak diren jarduerak antolatzea.
Adibidez, heziketari buruzko hitzaldiak, autolaguntzarako taldeak eta familia berriei harrera egiteko taldeak.

■ Batzarra deitzea

Batzar orokorra gutxienez urtean behin deitzen da. Ohiz kanpoko batzarrak ere egin daitezke gai zehatzak lantzeko.

Parte-hartze Batzordeak edo erabiltzaileen ehuneko 25ek eska dezakete ohiz kanpoko batzarra egitea.

Parte-hartze Batzordean pertsona bat egongo da batzarrerako deia egiteko.
Pertsona hori idazkaria da.

Deialdia egingo du batzarra baino 7 egun lehenago.
Zentroko iragarki-taulan argitaratuko du eta posta edo email bidez bidaliko die zentroko erabiltzaile eta haien ordezkari guztiei.

Deialdian agertuko den informazioa honako hau da:

- data
- ordua
- gai-zerrenda.

Batzarrean zehar, idazkariak kontuan hartuko ditu zenbat pertsona joan diren, zein gai jorratu diren eta zein akordio egin diren.

Informazio horrekin dokumentu bat idatziko du eta zentroko iragarki-taulan argitaratuko du.

Parte-hartze Batzordea

■ Zein dira Parte-hartze Batzordearen funtzioak?

- 1.** Zentroko zuzendariaren, profesional-taldearen eta erabiltzaileen arteko elkarrizketa erraztea.
- 2.** Erabiltzaileekin etengabeko harremana izatea haien interesak eta premiak hobeto ezagutzeko.
- 3.** Erabiltzaileek modu aktiboan parte har dezaten laguntzea.
- 4.** Erabiltzaileen artean elkarrekiko errespetuan oinarritutako elkarlanerako tokiak sortzea.
- 5.** Zentroko funtzionamendua hobetzeko elkarlanerako lantaldeak sortzea.

- 6.** Hauteskundeak deitzea Parte-hartze Batzordea osatuko duten pertsonak hautatzeko.
- 7.** Zentroko arauak jasotzen dituen dokumentua sortzean parte hartzea.
- 8.** Ezagutzea hurrengo hilabeteetan zentroak zenbat diru gastatuko duen eta zertan.
- 9.** Zentroaren urteko jarduera-programa onartzea eta programa betetzen dela egiaztatzea.
- 10.** Urtean behin batzar orokorrari berri ematea zentroaren funtzionamendu, dauden arazo eta proposatzen diren irtenbideei buruz.
- 11.** Batzar orokorrean proposatzen diren ideiak garatzeko lantaldeak sortzea que se proponen en la asamblea general.

■ **Nork osa dezake Parte-hartze Batzordea?**

Parte-hartze Batzordea zentroko erabiltzaile batzuek osatzen dute eta haien kide guztiak ordezkatzeko dituzte.

Pertsona horiek kezkatzen dituzten eta hobetu daitezkeela uste duten gauzen berri emango dute Partaidetza Batzordean. Zentroaren funtzionamenduari buruzko galderak ere egingo dituzte.

Zentro bakoitzean gutxienez 3 erabiltzailek beren kideak ordezkatzeko dituzte. Zuzendariak eta profesional-taldeko pertsona batek ere parte hartuko dute.

Parte-hartze Batzordea osatzen duten pertsonen kopurua beti bakoitia izango da. Genero berdintasuna bilatuko da emakumeen parte hartzearen alde.

Parte-hartze Batzordera gonbidatu daiteke
gai jakin batean adituak diren
eta Batzordean dauden pertsonak
aholka ditzaketen pertsonak.
Aditu horiek ezingo dute bozkatu,
ezta erabakirik hartu ere.

Zentro bateko erabiltzaileek
Parte-hartze Batzordean ordezkari izan nahi badute,
boluntario gisa aurkez daitezke.
Plaza libreak baino parte hartu nahi duten
pertsona gehiago daudenean,
zentroan bozketa bat egingo da
Parte-hartze Batzordeko kide
nor izango den erabakitzeke.

Parte-hartze Batzordea urtean behin berrituko da
eta osatuko duten pertsona berriak hautatuko dira.
Parte-hartze Batzordea osatzen duten pertsonak
ez dute dirurik kobratuko funtzio hori egiteagatik.

Parte-hartze Batzordean pertsona batek
lehendakariaren zeregina egiten du.

■ Zein dira lehendakariaren funtzioak?

- 1.** Zentroa eta erabiltzaileak ordezkatzea
ekitaldi eta jardueretan.
- 2.** Batzar orokorraren eta Parte-hartze Batzordearen
bilerak deitzea.
- 3.** Parte-hartze Batzordearen bileretako buru izatea.
- 4.** Erabiltzaileei eragiten dien eta interesatzen zaien
informazioa jasotzea zuzendaritza-taldearengandik.

■ Zein dira idazkariaren funtzioak?

1. Eztabaidak moderatzea, pertsonak ordenaren arabera hitz egin dezaten.
2. Bileran hitz egin diren gaiak eta hartu diren erabakiak jasotzen dituen dokumentu bat idaztea.
3. Parte-hartze Batzordearen jarduerekin eta batzarrarekin lotutako administrazio-lanak egitea. Adibidez, gutunak idaztea edo telefono-deiak egitea.
4. Parte-hartze Batzordearen liburuak eta dokumentuak gordetzea..

Idazkari izan daitezke zentroko arduradunak eta bertan lan egiten duten profesionalak.

■ Zein dira batzordekide gisa parte hartzen duten pertsonen funtzioak?

Batzordekide dira Parte-hartze Batzordean ordezkari gisa parte hartzen duten gainerako pertsonak.

Honako zeregin hauek dituzte:

1. Lehendakariari Parte-hartze Batzordean edo batzarrean landu nahi diren gaiak proposatzea.
2. Lantaldeetan parte hartzea.
3. Eztabaidetan parte hartzea eta proposamenak bozkatzea.

■ Noiz bilduko da Parte-hartze Batzordea?

3 hilean behin biltzen da gutxienez.

Gai garrantzitsuak landu behar direla uste dutenean, gehiagotan bil daitezke.

Kasu horietan bilera 48 ordu lehenago deitu behar da.

Aldaketaren bat proposatu

edo akordioaren bat lortu nahi denean,

bileran bozkatuko da,


aldaketa edo akordio hori onartzen den jakiteko.

Onartua izan dadin, aldeko boto gehiago jaso behar ditu kontrakoak baino.

Parte-hartze Batzorde bat egiteko,

batzorde hori osatzen duten pertsonen erdiak

gehi batek egon behar dute gutxienez.



Kexak eta iradokizunak aurkeztea

■ Kotsultak

Zentroko hainbat profesionalek erabiltzaileek egiten dituzten kotsultak jasotzeko zeregina izango dute.

Kotsulta horiek lotuta egon daitezke zentroko eguneroko bizimoduarekin, funtzionamenduarekin eta erabiltzaileei emandako arretarekin. Kotsultak egin daitezke posta elektronikoaren, telefonoaren, elkarrizketa-eskaeren bidez edo zentroko iradokizunen postontzian utzita.

Kotsulta modu horietako baten bidez egin ezin denean, pertsona zentroko zuzendariarekin hitz egitera joan daiteke.

■ Kexak eta iradokizunak

Erabiltzaileek kexa edo iradokizun bat bidal dezakete zentrora, zuzendariak kotsultari eman dion erantzunarekin ados ez daudenean.

Erabiltzaile bakoitzak duen erreferentziako pertsonak azalduko dio nola jarri kexa edo iradokizuna kasu bakoitzean. Bete beharreko inprimakiak emango dizkio eta betetzen lagunduko dio idazteko edo jartzen duena ulertzeko zailtasunak baditu.

Zentro guztiek gogobetetze-inkesta bana eman beharko diete urtean behin erabiltzaileei eta haien senideei, zentroak eskaintzen dituen zerbitzuekin ados dauden jakiteko.

Zentroak inkesta horien emaitzak kontuan hartuko ditu, ekintza eta jarduera berriak proposatzerakoan hobetzeko.



Legeak

Atal honetan daude gida honekin zerikusia duten Euskal Autonomia Erkidegoko lege garrantzitsuenak.

Ez dira irakurri behar gida ulertzeko eta ez daude Irakurketa Errazean. Baina informazio gehiago izateko begira ditzakezu.

- 12/2008 Legea, abenduaren 5ekoa, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa.
- 64/2004 Dekretua, apirilaren 6koa, zeinaren bidez onartu baita Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte zerbitzuen erabiltzaileen eta profesionalen eskubide eta betebeharren gutuna, eta iradokizunen eta kexen araubidea.